


# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktuaren xede-publikoa beste herrialde batzuetako biztanleekin komunikatu nahi duten pertsonak dira, beste hizkuntza bat erabiltzen duten biztanleekin, hain zuzen ere.

Kontsumitzaile talde honen ezaugarriak honako hauek izan daitezke:

- 18 urtetik gorako gazte eta helduak
- Teknologiaren abantailak onartu eta beren alde erabiltzen dituzte
- Munduko edozein lekukoak dira (aplikazioak eskaintzen dituen hizkuntzetako bat hitz egiten du)
- Kultura eta ohitura desberdinetara irekiak
- Munduko lurralde desberdinekiko jakin-mina
- Jende berria ezagutu nahi dute
- Hizkuntza oztopoak amaitu nahi dituzte

Produktu desberdinduaren estrategia erabiltzen dugu, izan ere, merkatu-segmentuaren arabera ezaugarri bat edo beste izango ditu gure aplikazioak.



**Hiru merkatu-segmentu bereizten dira gure aplikazioari dagokionez:**

### **LAGUNTASUN-SEGMENTUA**

Aplikazioaren zati bat jende berria ezagutu eta lagun berriak egin nahi dituen jendeari zuzenduta dago. Esparru honetan erabiltzaileek test moduko bat bete beharko dute. Hainbat galdera erantzungo dituzte gehien bat hobby eta zaletasunei buruz, esaterako: gustuko telesailak, musika, liburuak, kirolak, etab. . Erantzunen arabera, beste herrialde batzuetako pertsonak azalduko dira zaletasun berdinekin. Aplikazioaren helburua segmentu honetan erabiltzaileek gustu berdineko lagunak aurkitzea eta haiekin komunikazioa ahalbidetzea da.

### **MAITASUN-HARREMAN-SEGMENTUA**

Produktuaren lerro honetan maitasunaren bila aplikazioa deskargatu duten erabiltzaileak aurkitzen dira. Laguntasun-segmentuan bezala test moduko bat bete behar da, baina amodioarekin zerikusia duten galderak ere agertuko dira. Erabiltzaileei “match” potentzialak erakutsiko zaizkie haiek aukeratu ahal izateko.

### **ENPRESA-SEGMENTUA**

Talde honetako erabiltzaileak enpresak, enpresariak, ekintzaileak, etab. izango dira. Gure aplikazioak hauentzat informazioa betetzeko galdetegi ezberdin bat eskaintzen diete; horrela, beste enpresen aurrean informazio espezifikoa edo zehaztuagoa aurkezten dute.